

UDALBURUA
Josu Artetxe Arana

AIARAKO UDALAK 2015eko UZTAILAREN 2an EGINIKO
EZOHIKO BILKURAREN AKTA

ZINEGOTZIAK

Gentza Alamillo
Iñigo Pinedo
José Antonio Bartolomé
Montse Angulo
Susana Martín
Josu Artetxe
Lauren Uría
Esterban Hernando
Nerea Goti
Iraida Saenz de Lafuente
Xabier Artiñano

Arespalditzan, udaletxeko bilkura-aretoan, bi mila eta hamabosteko uztailaren bian, hamahiruak direnean, Udalbatza Osoa bildu da, ohiko bilkura egiteko. Gentza Alamillo Udaeta alkate jauna da burua, eta albo batean aipatutako zinegotziak bertaratu dira, behar bezala deituta, Toki Araubidearen Oinarriak araupetzen dituen apirilaren 2ko 7/85 Legearen 46 b) artikuluan xedaturikoaren arabera. Naiara Lazpita Marcos idazkari andreak lagundu ditu, eta ekitaldiaren fede eman du.

IDAZKARIA

Naiara Lazpita

1.- Udaleko talde politikoaren eraketaren berri ematea.

IKUSI DA.- Antolakuntzari, Funtzionamenduari eta Araubide Juridikoari buruzko Araudiaren (AJA) 23. artikuluan xedatutakoaren arabera, zinegotziek Udaleko talde politikoak eratuko dituzte, Korporazioan lan egin dezaten.

IKUSI DA.- Udaleko talde politikoak eratzeko, zinegotziek idatzi bat izenpetu eta alkateari igorri behar diote. Horretarako, Idazkaritza Nagusian aurkeztu behar dute Udala eratzten denetik hurrengo bost egun balioduneko epean, eta hala bozeramailea nola ordezkoa izendatu behar dituzte (AJAren 24. artikulua).

AINTZAT HARTU DA.- Zinegotzi hautetsiek honako idatzi hauek izenpetu eta aurkeztu dituzte:

- EAJ-PNV udal-talde politikoa:

Kideak:

- Gentza Alamillo Udaeta
- Iñigo Pinedo Vadillo
- José Antonio Bartolomé Pesquera
- Montse Angulo Solloa
- Susana Martín Benavides

Bozeramailea: Gentza Alamillo Udaeta

Ordezkoa: Iñigo Pinedo Vadillo

- BILDU udal-talde politikoa:

Kideak:

- Josu Artetxe Arana
- Lauren Uria Peña
- Nerea Goti Valle
- Esteban Hernando Landa

Bozeramailea: Josu Artetxe Arana

Ordezkoa: Lauren Uria Peña

- AIARA BATUZ- Trabajando por los pueblos- udal-talde politikoa

Kideak:

- Iraida Sáenz de Lafuente Blanco
- Xabier Artiñano Montalbán

Bozeramailea: Iraida Sáenz de Lafuente Blanco

Ordezkoa: Xabier Artiñano Montalbán

AINTZAT HARTU DA.- Arestian adierazitako guztia eta AJAk udal-taldean eraketari eta taldekide eta bozeramaileei buruzko 25. artikuluan xedaturikoa. Artikulu horren arabera, alkateak Udaltzari kontu emango dio egiten den lehenengo bilkuran. Hala, alkate-udalburuak, Toki Araubidearen Oinarriak araupetzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 21. artikulua ematen dizkion eskumenak erabiliz, honako **ERABAKI** hau aurkeztu dio Udaltzari Osoari:

LEHENENGOA.- Jakitun geratzea erabaki honen azalpenen atalean adierazitako udal-talde politikoen eraketaren gainean eta talde politiko horietako bozeramaile eta ordezkoen izendapenaren gainean.

2.- Alkateordeen izendapenaren berri ematea.

2015eko ekainaren 26ko 273/15 Alkatetza Dekretuaren bidez, honako hauek izendatu dira alkateorde:

- Lehenengo alkateordea: Iñigo Pinedo Vadillo jn.
- Bigarren alkateordea: José Antonio Bartolomé Pesquera jn.

Udaltzari jakitun geratu da.

3.- Udalbatzaren ohiko bilerak egiteko maiztasuna eta egunak onartzea.

Ez da gaiari buruzko ezer esan eta bozketa egin da. Udalbatza Osoko kideek aho batez onetsi dute.

Eta hori dela bide,

IKUSI DA.- Tokiko Araubidearen Oinarriak araupetzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeak 46. artikuluan xedaturikoa; ohiko osoko bilkurak egiteko gutxieneko maiztasuna ezartzen du biztanle-kopuruaren arabera.

IKUSI DA.- Udal-kudeaketak eskatzen duen jardueraren eta beharizanen bolumena.

AINTZAT HARTU DA.- Arestian adierazitako guztia, eta Toki Araubideari buruzko Testu Bateginaren 47. artikuluan eta Antolakuntzari, Funtzionamenduari eta Araubide Juridikoari buruzko Araudiaren 78.1 artikuluan ezarritakoa. Hala, alkate-udalburuak proposatuta, Udalbatzak hau **ERABAKI DU**:

LEHENENGOA.- Ohiko osoko bilkurak hilero egitea. Horretarako, hileko hirugarren osteguna hartuko da, abuztuan izan ezik; izan ere, ohiko bilkurak egiteko baliogabea da.

Ezarritako eguna baliogabea bada, aurreko egun baliodunean egingo da.

Ohiko bilkurak 19:00etan egingo dira.

4.- Informazio Batzordeak eta Kontuen Batzorde Berezia eratzea.

Gentza jaunak (EAJ-PNV) gobernu-taldeak eginiko proposamena azaldu du.

Halaber, esan du Aiara Batuz taldeak beste proposamen bat igorri diola.

Iraida andreak (AB) adierazi du bere ustez kendu egin beharko litzatekeela Lehen Sektorea eta Ingurumena Batzordea. Izan ere, "Ingurumena" estuki lotuta dago "Hirigintza" arloarekin; beraz, Hirigintza Batzordean egon beharko luke. Bestalde, "Lehen Sektorea" jarduera ekonomiko bat gehiago da, eta Ekonomia Sustapena Batzordean sartu beharko litzateke.

Josu jaunak (BILDU) azaldu du beren ustez "Obrak eta Zerbitzuak" banandu egin beharko litzatekeela "Hirigintza"-tik, biek ala biek baitute aparteko bi batzorde eratzeko behar besteko garrantzia. Euskarako arloari dagokionez, egungo egoera soziolinguistikoa ikusirik, uste dute batzorde independente batean egon beharko lukeela. Hori dela eta, proposatu dute "Euskara" eta "Hezkuntza" arloekin "Kultura" arlotik bereizitako batzorde bat osatzea.

Iraida andreak (AB), horri dagokionez, esan du ez duela egokitzat jotzen "Hirigintza" eta "Obrak eta Zerbitzuak" batzordeak bereiztea; izan ere, aurreko legegintzaldian ikusi zen batzuetan ez zegoela nahiko puntu. Hortaz, komenigarriagoa iruditzen zaio bi arloak batera egotea.

Gentza jaunak (EAJ-PNV) esan du arlo batek indarra hartzeko ez duela behar batzorde independenterik. Nahiz eta "Euskara" arloa Kultura Batzordearen barruan egon, ez du esan nahi ez zaiola behar duen garrantzia emango.

Obrak eta Zerbitzuak eta Hirigintza Batzordeari dagokionez, jakinarazi du gobernu-taldeak ontzat jo duela Ingurumena arloa gehitzea; izan ere, eragina du, eta oso lotuta dago “Hirigintza” arloarekin.

Hala ere, Gentza jaunak adierazi du beren ustez “Lehen Sektorea” arloak batzorde berezi bat izan behar duela.

Lauren jaunak (BILDU) azaldu du beren iritziz Obrak eta Zerbitzuak eta Hirigintza eta Ingurumena Batzordea gehiegizkoa izango dela; gainera, azken urteotan, “Ingurumena” arloarekin lotutako gaien % 90 hondakinen kudeaketari buruzkoak ziren. Horregatik, uste dute gehiegizkoa dela arlo horiek guztiak batzorde berean lantzea.

Gentza jaunak (EAJ-PNV) esan du ez dutela ordu finkorik proposatu batzordeetarako; izan ere, batzordekideen eta landuko diren puntuaren arabera, zinegotziei kalte gutxiena egiten dien ordutegia lortzen saiatuko dira.

Iraida andreak (AB) adierazi du uste dutela “Lehen Sektorea” arloa Ekonomia Sustapena Batzordera gehitu eta behar den maiztasunarekin deitu beharko litzatekeela.

Gentza jaunak proposatu du komentatu duten bezala hastea. Gero, denborak aurrera egin ahala, ikusiko dute aldaketaren bat egin behar den.

Inork ez du horri buruzko ezer esan; beraz, gaiari buruzko bozketa egin da eta hau izan da emaitza:

ALDEKO BOTOAK: 5 (EAJ-PNV)

ABSTENTZIOAK: 4 (BILDU)

KONTRAKO BOTOAK: 2 (AIARA BATUZ)

Eta hori dela bide,

IKUSI DA.- Toki Araubidearen Oinarriak araupetzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeak hau ezartzen duela bere 20. artikuluan, 1. paragrafoan: 5.000 biztanletik beherako udalerrietan, Udalbatzak erabakiko du berak ebatzi beharreko gaiei buruz aztertzea, informazioa ematea edo galderak egitea helburu duten informazio-batzordeak sortu ala ez.

IKUSI DA.- 7/1985 Legearen 20. artikuluko horretan bertan eta Antolakuntzari, Funtzionamenduari eta Araubide Juridikoari buruzko Araudiaren (AJA) 124. artikuluan, ezartzen da Korporazioa osatzen duten talde politiko guztiek eskubidea izango dutela organo horietan parte hartzeko; horretarako, kide diren zinegotziak bertaratuko dira.

AINTZAT HARTU DA.- Informazio-batzordeen kopuruari eta eskumenei buruzko AJA araudiaren 124 eta 125. artikuluekin bat eginez, alkate-udalburuak hala proposatuta, Udalbatzak hau **ERABAKI DU:**

LEHENENGOA.- Jarraian adierazten diren informazio-batzorde hauek eratzea:

* SOZIOSANITARIOA, BERDINTASUNA eta IMMIGRAZIOA Informazio Batzordea

* HIRIGINTZA-OBRAK ETA ZERBITZUAK ETA INGURUMENA Informazio Batzordea

* EKONOMIA SUSTAPENA, ENPLEGUA ETA IKTak Informazio Batzordea

- * EUSKARA ETA HEZKUNTZA, KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA Informazio Batzordea
- * ADMINISTRAZIO BATZARREKIKO HARREMANAK Informazio Batzordea
- * LEHEN SEKTOREA Informazio Batzordea
- * OGASUNA, FUNTZIO PUBLIKOA, BARNE ARAUBIDEA eta KONTUEN BEREZIA Informazio Batzordea.

BIGARRENA.- Hurrengo puntuan adierazten diren informazio-batzordeetako batzordeburu eskuordetzea:

HIRUGARRENA.- Honako kide hauek osatuko dituzte informazio-batzordeak, eta **hilaro bigarren ASTEARTEAN** egingo dira, aztergairik ez dagoenean izan ezik:

- * **SOZIOSANITARIOA, BERDINTASUNA eta IMMIGRAZIOA Informazio Batzordea**

Batzordekideak:

Batzordeburua: Susana Martín Benavides
Ordezkoa: Montse Angulo Solloa

Kideak: Gentza Alamillo (Bildu); Lauren Uría eta Nerea Goti (BILDU) eta Iraidá Sáenz de la Fuente (AB)

- * **HIRIGINTZA-OBRAK ETA ZERBITZUAK ETA INGURUMENA Informazio Batzordea**

Batzordekideak:

Batzordeburua: Iñigo Pinedo Vadillo
Ordezkoa: José Antonio Bartolomé Pesquera

Kideak: Gentza Alamillo Udaeta (EAJ-PNV); Josu Artetxe eta Esteban Hernando (BILDU) eta Iraidá Sáenz de la Fuente (AB)

- * **EKONOMIA SUSTAPENA, ENPLEGUA ETA IKTak Informazio Batzordea**

Batzordekideak:

Batzordeburua: Iñigo Pinedo Vadillo
Ordezkoa: José Antonio Bartolomé Pesquera

Kideak: Gentza Alamillo Udaeta (EAJ-PNV); Lauren Uría eta Nerea Goti (BILDU) eta Iraidá Sáenz de la Fuente (AB)

*** EUSKARA ETA HEZKUNTZA, KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA Informazio Batzordea**

Batzordekideak:

Batzordeburua: Montse Angulo Solloa

Ordezkoa: Susana Martín Benavides

Kideak: Gentza Alamillo (Bildu); Josu Artetxe eta Nerea Goti (BILDU) eta Xabier Artiñano (AB)

*** ADMINISTRAZIO BATZARREKIKO HARREMANAK Informazio Batzordea**

Batzordekideak:

Batzordeburua: José Antonio Bartolomé Pesquera

Ordezkoa: Iñigo Pinedo Vadillo

Kideak: Gentza Alamillo Udaeta (EAJ-PNV); Josu Artetxe eta Esteban Hernando (BILDU) eta Xabier Artiñano (AB)

*** LEHEN SEKTOREA Informazio Batzordea**

Batzordekideak:

Batzordeburua: Gentza Alamillo Udaeta

Ordezkoa: Iñigo Pinedo Vadillo

Kideak: José Antonio Bartolomé Pesquera (EAJ-PNV); Josu Artetxe eta Lauren Uría (BILDU) eta Xabier Artiñano (AB)

*** OGASUNA, FUNTZIO PUBLIKOA, BARNE ARAUBIDEA eta KONTUEN BEREZIA Informazio Batzordea.**

Batzordekideak:

Batzordeburua: Gentza Alamillo Udaeta

Ordezkoa: José Antonio Bartolomé Pesquera

Kideak: Iñigo Pinedo Vadillo (EAJ-PNV); Lauren Uría eta Esteban Hernando (BILDU) eta Iraidia Sáenz de la Fuente (AB)

LAUGARRENA.- Batzordeburuak egingo du informazio-batzordeetarako deialdia, gutxienez bi egun lehenago. Deialdia batzordekide guztiei egingo die, eta aztergaiak jasota egongo dira. Alabaina, aztergaien zerrendan ageri ez diren gaiak ere jorratu ahal izango dira, aldez aurretik premiazkoak direla adierazi bada.

BOSGARRENA.- Informazio-batzordeek Toki Araubidearen Oinarriei buruzko Legearen 20. artikulua ematen dizkien funtzioak izango dituzte.

SEIGARRENA.- Informazio-batzorde guztiek AJAren 123, 126, 134 eta 138. artikuluetan xedaturikoaren arabera jardungo dute.

5.- Alkatearen arduraldi eskusiboa, zinegotzien dietak eta talde politikoaren esleipenak onestea.

Gentza jaunak (EAJ-PNV) esan du orain artean bezala jarraitzea proposatzen dutela. Halaber, esan du Hirigintza, Obrak eta Zerbitzuak eta Ingurumena Batzordeko burua udaletxean egongo dela egun batez, dagokien teknikariak bertan daudenean.

Idazkariak gogorarazi du zinegotzietan dieta gisa esleitutako zenbatekoak batzordeetara edo osoko bilkuretara bertaratzeagatik jasotzen direla. Kideak bertaratzen ez badira, ez dira kobratuko.

Iraida andreak (AB) azaldu du beste neurri bat onartu beharko litzatekeela: hau da, batzordea justifikatu gabeko arrazoiren batekin utziz gero, dietarik ez kobratzea. Irizpide batzuk ezarri ahalko liriteke; adibidez, langileei lanpostua uztea ahalbidetzen dieten arrazoien inguruko irizpideak bezalakoak (mediku-kontsultak...). Horrela, batzordea amaitu aurretik ez etorria justifikatzen ez duenak ez du dietarik kobratuko.

Lauren jaunak (BILDU) esan du hori Barne Araubidea Batzordean eztabaidatu beharko litzatekeela. Izan ere, norbera lan-egoera jakin batean dago, eta batzuek zailtasunak dituzte lana utzi ahal izateko.

Gentza jaunak (EAJ-PNV) adierazi du onena izango litzatekeela joko-arau batzuk ezartzea batzordeak biltzen direnean, ondo funtziona dezaten.

Ez da beste oharrik egin; beraz, gaia bozkatu dute, eta korporazioko kideek aho batez onetsi dute.

Eta hori dela bide,

IKUSI DA.- Toki Autonomiaren Europako Gutunaren 7.2. artikulua xedatzen du tokiko ordezkarien estatutuak bermatu egin behar duela bere agintaldian bere aldetik jardutea, eta horretarako agintaldiko jarduna, galdutako irabaziak, egindako lanaren ordainketa eta dagokion gizarte-estaldura dela-eta eragindako gastuei egokitutako finantza-konpentsazioa eman behar zaiola.

IKUSI DA.- Toki Araubidearen Oinarriak araupetzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 75. artikulua.

Alkate-udalburuak hala proposatuta, Udalbatza Osoak honako hau **ERABAKI DU**:

LEHENENGOA.- Alkate-udalburuak arduraldi eskusiboko erregimenean beteko du bere kargua, Toki Araubidearen Oinarriei buruzko apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 75.1 artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik. Hori dela eta, 08:00etan hasiko da haren ohiko lanaldia, eta 15:00etan amaitu. Nolanahi ere, baliteke ordutegi horretatik kanpo lan batzuk egin behar izatea. Arduraldi eskusibo horretarako, alta eman behar da Gizarte Segurantzako Erregimen Orokorrean, eta Udalak bere gain hartuko ditu dagozkion enpresa-kuoten ordainketak.

Alkate-udalburuaren kargua betetzeagatik, 3.094,71 euroko ordainsari gordina jasoko du hilean, 14 hiletan banatuta (guztira: 43.325,94 €/urte).

Gizarte Segurantzako Erregimen Orokorreko alta eta aipatutako esleipena 2015eko uztailearen 2an egingo dira; hortik aurrera egongo da indarrean Aiarako Udaleko alkate-udalburuaren arduraldia. Nolanahi ere, ordainsari horren zenbatekoa Udaleko langileen hitzarmenaren baldintzen arabera eguneratuko da.

Urteko Aurrekontua Betearazteko Arauan erregimen eta arduraldi horrekin lotutako kontuak jasoko dira, bai eta jarraian adierazitako urteko aldaketak ere.

Edonola ere, ordainsari hori jasotzea ez da bateragarria izango administrazio publikoen eta horien mendeko erakunde, organismo edo enpresen aurrekontuen kargura ordaintzen diren beste ordainsari batzuk jasotzearekin, ez eta beste jardura batzuk egitearekin ere, hori guztia Administrazio Publikoetako Langileen Bateriaezintasunei buruko abenduaren 26ko 53/1984 Legearekin bat etorritik.

BIGARRENA.- Toki Araubidearen Oinarriei buruzko apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 73.3 artikuluan xedatutakoarekin bat, eraturako udal-talde politiko bakoitzari 225 euro/hilabeteko osagai finkoko ekonomia-zuzkidura esleituko zaio, eta udal-taldeak osatzen dituzten zinegotzi bakoitzari 65 euro/hilabeteko osagai aldakorra.

Talde politikoek zuzkidura horren kontabilitatea egin beharko dute, eta Udalbatza Osoari aurkeztuko diote, hark eskatzen dienean. Edonola ere, zenbateko horiek ezingo dira erabili Udalbatzako edozein langilearen ordainsariak ordaintzeko edo ondare-izaerako aktibo finakoak eratu ditzaketen ondasunak eskuratzeko.

HIRUGARRENA.- Udalbatzan arduraldirik (partziala zein eskusiboa) ez duten kideek zenbateko hauek jasoko dituzte kide anitzeko hainbat organotara bertaratzeagatik.

- OHIKO BILKURETARA bertaratzeagatik..... 170 euro gordin

- EZOHIKO BILKURETARA bertaratzeagatik..... 30 euro gordin

- INFORMAZIO BATZORDEETARA bertaratzeagatik

* Batzordekide gisa 30 euro gordin

* Batzordeburu gisa 240 euro gordin

* Hilabete berean arlo bereko batzorde bat bigarren aldiz edo gehiagotan elkartzen bada, ezohikotzat joko da, eta batzordeburuak zein batzordekideek 30 euro gordineko dietak jasoko dituzte.

Norbait bertaratzen ez bada, ez ditu zenbateko horiek jasoko.

LAUGARRENA.- Joan-etorriak, otorduak, gaualdiak eta halakoak egiteagatik emango diren dieten erregimena eta zenbatekoa berbera izango da zinegotzientzat eta langileentzat, eta zorrotz ezarriko dira dagokion hitzarmenean horri buruz jasotzen diren xedapenak.

BOSGARRENA.- Taldeei esleituko zaizkien zenbatekoak eta kide anitzeko organoetara bertaratzeagatik finkatutakoak 2015eko uztailaren 1etik aurrera sartuko dira indarrean.

SEIGARRENA.- Erabaki hau Arabako Lurralde Historikoko Aldizkari Ofizialean eta udaletxeko iragarki-taulan argitaratuko da, Toki Araubidearen Oinarriari buruzko Legearen 75. artikuluko 5. atalean xedatutakoarekin bat etorritz.

6.- Aiarako Eskualdean izango diren udal-ordezkeriak izendatzea.

Ez da gaiari buruzko ezer esan eta bozketa egin da. Udalbatza Osoko kideek aho batez onetsi dute.

Hori dela bide,

IKUSI DA.- Eskualdeei buruzko azaroaren 20ko 63/1989 Foru Arauaren 14,2 f) artikuluan xedatutakoarekin bat etorritz, Aiarako Udalarri bost batzarkide izendatzea dagokio bere zinegotzien artean, biztanle-kopurua dela eta (2.001 eta 5.000 artean).

IKUSI DA.- Postuak alderdien, koalizioen eta federazioen eta hautesle-talde bakoitzaren artean banatzen dira talde politiko bakoitzak jasotako boto-kopuruaren arabera, Hauteskundearen Araubide Orokorrari buruzko ekainaren 19ko 5/1985 Lege Organikoaren 163. artikuluan ezarritako prozedura aplikatuz.

AINTZAT HARTU DA.- Hauek izan dira Aiarako Udaleko hauteskundeetako emaitzak:

Alderdiak Koalizioak	Botoak guztira Zati 1 eginda	Zati 2 eginda	Zati 3 eginda
EAJ-PNV	648	324	216
EH-BILDU	571	285,5	
AIARA BATUZ	245		
ALDERDI POPULARRA	85		

Ondorioz, honako postu hauek dagozkie alderdi hauei: bi (2) postu EAJ-PNVri, bi (2) postu EH-BILDUri eta (1) AIARA BATUZi.

AINTZAT HARTU DA.- Udalbatza Osoak egin behar du izendapena bi hilabeteko epean, eratu den egunetik aurrera zenbatzen hasita, eta Arabako Batzar Nagusiei jakinarazi beharko die. Alkate-udalburuak hala proposatuta, Udalbatza Osoak honako hau **ERABAKI DU**:

LEHENENGOA.- Aiarako Eskualdeko Batzarrerako udal honi dagozkion bost batzarkideak izendatzea talde politiko bakoitzetik jasotako boto-kopuruaren arabera, Hauteskundeetarako Erregimen Orokorrari buruzko ekainaren 19ko 5/1985 Lege Organikoaren 163. artikuluan ezarritako prozedura aplikatuz.

a) EAJ-PNV udal-talde politikotik:

- * Gentza Alamillo Udaeta.
- * Iñigo Pinedo Vadillo.

b) EH-BILDU udal-talde politikotik:

- * Josu Artetxe Arana.
- * Lauren Uría Peña.

c) AIARA BATUZ udal-talde politikotik:

- * Iraida Saénz de Lafuente Blanco.

BIGARRENA.- Erabaki hau Arabako Batzar Nagusiei eta Aiarako Eskualdeari jakinaraztea, horren berri izan dezaten.

7.- Aiaratur-en izango diren udal-ordezkariek izendatzea.

Ez da gaiari buruzko beste ezer esan; beraz, bozketa egin da eta aho batez onetsi da.

Hori dela bide,

IKUSI DA.- 2015eko maiatzaren 24ko tokiko hauteskundeak egin ondoren, berriro egin dira tokiko korporazioak, eta, ondorioz, Udal honek beste ordezkariek batzuk jarri behar ditu beste erakunde eta instituzio batzuetan.

IKUSI DA.- Aiaratur – Aiarako Haraneko eta Goi Nerbioiko Turismo Elkarteak idatzi bat bidali zion Udal honi ekainaren 30ean, Udalak elkarte honetan izango dituen ordezkariek berriak izendatzeko.

AINTZAT HARTU DA.- Arestian aipatutako idatzian adierazitakoaren arabera, Aiaratur – Aiarako Haraneko eta Goi Nerbioiko Turismo Elkartearen barne-araudian, erakunde publikoek % 59ko ordezkaritza izango dute Batzar Nagusian (33 boto); beraz, Aiarako Udalariek 5 ordezkariek dagozkio.

Halaber, adierazten da Zuzendaritza Batzordean elkarte horretako kide diren udal guztietako 6 alkateek edo euren eskuordetutako pertsonen (alkatea buru den Udaleko kideak) osatuko dutela ordezkaritza.

Gainontzekoak alderdi politiko bakoitzeko ordezkariek batentzat egongo dira gordeta.

AINTZAT HARTU DA.- Udalbatza Osoak egin behar du izendapena. Alkate-udalburuak hala proposatuta, Udalbatza Osoak honako hau **ERABAKI DU:**

LEHENENGOA: Aiarako Udalak Aiaraturren Batzar Nagusian izango dituen bost ordezkariek izendatzea:

- Gentza Alamillo Udaeta

- Iñigo Pinedo Vadillo
- Josu Artetxe Arana
- Esteban Hernando Landa
- Xabier Artiñano Montalbán

BIGARRENA.- Gentza Alamillo Udaeta alkate jauna izendatzea Aiaraturreko Zuzendaritza Batzordeko ordezkari eta Iñigo Pinedo Vadillo jauna haren ordezko.

HIRUGARRENA.- Erabaki hau Aiaratur – Aiarako Haraneko eta Goi Nerbioiko Turismo Elkarteari jakinaraztea, jakinaren gainean egon dadin.

8.- Gorobel Mendilerroko Antzinako Ermandadearen Batzordeko kidea izendatzea.

Iraida andreak (AB) azaldu du kargu hauek agian talde politiko guztien artean adostu behar lituzketela.

Besterik esan ez denez, gaiari buruzko bozketa egin da eta hau izan da emaitza:

ALDEKO BOTOAK:	9 (5 EAJ-PNV + 4 BILDU)
ABSTENTZIOAK:	2 (AB)

Hori dela bide,

IKUSI DA.- 2015eko maiatzaren 24ko tokiko hauteskundeak egin ondoren, berritu egin dira tokiko korporazioak, eta, ondorioz, Udal honek beste ordezkari batzuk jarri behar ditu beste erakunde eta instituzio batzuetan.

AINTZAT HARTUTA.-

Aurreko guztian **OINARRITUZ**, alkate-udalburuak hala proposatuta, Udalbatza Osoak honako hau **ERABAKI DU**:

LEHENENGOA.- Honako hauek izendatzea Gorobel Mendilerroko Antzinako Ermandadearen Batzordeko Udalaren batzordekide eta ordezko:

- * Batzordekidea: José Antonio Bartolome Pesquera jn.
- * Ordezkoa: Iñigo Pinedo Vadillo jn.

BIGARRENA.- Erabaki hau Gorobel Mendilerroko Antzinako Ermandadearen Batzordeari jakinaraztea, jakinaren gainean egon dadin.

9.- Diruzaina izendatzea.

Josu jaunak (Bildu) esan du aurreko legealdian diruzaina ez zela gobernuan zegoen alderdikoa, beste alderdi batekoa zela, eta esperientzia hori dela-eta ontzat jo zutela Esteban Hernando proposatzea

diruzaina izateko, interesgarria izango litzatekeelako diruzaina gobernu-taldean ez dagoen zinegotzi bat izatea.

Horrenbestez, proposamen hori gobernu-taldeak aurkeztutako proposamenaren zuzenketa gisa aurkezten da.

Jarraian, zuzenketa horri buruzko bozketa egin da, eta honako hau izan da emaitza:

ALDEKO BOTOAK	4	BILDU
AURKAKO BOTOAK	5	EAJ-PNV
ABSTENTZIOAK	2	AB

Horrenbestez, ez da onetsi Bildu udal-taldeak aurkeztutako zuzenketa.

Jarraian, gobernu-taldeak aurkeztutako proposamena bozkatu da, eta honako hau izan da emaitza:

ALDEKO BOTOAK	5	EAJ-PNV
AURKAKO BOTOAK	4	BILDU
ABSTENTZIOAK	2	AB

Hori dela bide,

IKUSI DIRA.- Toki Araubidearen Oinarriei buruzko Legearen 92.4 artikulua eta Toki Araubideari buruz indarrean dauden legezko xedapenei buruzko 781/1986 Legegintzako Errege Dekretuaren 164.2 artikulua. Artikulu horiek ezartzen dute Korporazioko kide bat izenda daitekeela diruzain.

Aurreko guztian **OINARRITUZ**, alkate-udalburuak hala proposatuta, Udalbatza Osoak honako hau **ERABAKI DU**:

LEHENENGOA.- Montserrat Angulo Solloa andrea izendatzea Udal honetako diruzain.

10.- Honako erakunde hauetako udal-ordezkarien izendapenen berri ematea:

- “Kantauriko Urkidetza” Ur Partzuergoa

289/15 Alkatetza Dekretuaren bitartez, Gentza Alamillo Udaeta jauna izendatu da “Kantauriko Urkidetza” Ur Partzuergoko Batzorde Nagusiko zein Gobernu Taldeko udal-ordezkarri, eta José Antonio Bartolomé Pesquera jauna izendatu da haren ordezko.

Iraida andreak (AB) bere iritzia eman du Ur Partzuergoko ordezkaritzari buruz. Azaldu du Udalak ez duela ia eskumenik urei dagokienez, administrazio-batzarrenak baitira eskumen horiek; beraz, Iraidaren iritziz, aztertu beharko litzateke Partzuergoko udal-ordezkarri gisa administrazio-batzarrak izendatzeko aukera, haiek dituztelako eskumenak.

Gentza jaunak (EAJ-PNV) esan du hori ez dela posible, horretarako Partzuergoko estatutuak aldatu beharko liratekeelako; izan ere, horiek erabakitzen dute nor den ordezkarria, eta, gaur egun, Udalarri dagokio ordezkaritza. Ideia hori partzuergora eraman daiteke eta han aztertu.

Udalbatza jakitun geratu da.

- Aiarako Suhiltzaileen Partzuergoa (SPEIS).

286/15 Alkatetza Dekretuaren bitartez, Gentza Alamillo Udaeta jauna izendatu da Aiarako Suhiltzaileen Partzuergoko (SPEIS) Zuzendaritza Batzordeko udal-ordezkari, eta Iñigo Pinedo Vadillo jauna haren ordezkari.

Udalbatza jakitun geratu da.

- Zabaia Landa Garapenerako Elkartea.

287/15 Alkatetza Dekretuaren bitartez, Gentza Alamillo Udaeta jauna izendatu da Zabaia Landa Garapenerako Elkarteko udal-ordezkari eta José Antonio Bartolomé Pesquera jauna haren ordezkari.

Udalbatza jakitun geratu da.

- Zaraobe Institutuko Eskola Kontseilua.

- Etxaurren Ikastolako Eskola Kontseilua

- Etxaurren Haur-eskola

2885/15 Alkatetza Dekretuaren bitartez, Gentza Alamillo Udaeta jauna izendatu da Zaraobe Institutuko, Etxaurren Ikastolako eta Etxaurren Haur-eskolako eskola kontseiluetako udal-ordezkari eta Montserrat Angulo Solloa andrea izendatu da haren ordezkari.

Udalbatza jakitun geratu da.

Jorrazeko beste aztergairik ez dagoenez, alkate-udalburuak bilera bukatutzat eman du hamahiruak eta berrogei minutu zirenean, eta, aztertutako guztia eta hartutako erabakiak jasota gera daitezen, akta hau egin dut eta neuk, idazkariak, egiaztatzen dut, Aiaran, bi mila eta hamabosteko uztailaren bian.

OE

ALKATE UDALBURUA,

IDAZKARIA,